— 16 urteko eta gehiagoko Gipuzkoako biztanleen %80,3 oso ados dagoadministrazio publikoek garraio publikoa hobetzeko neurriarekin, klima-aldaketaren aurkako ahalegin gisa. %78,5 oso ados dago baso-azalera handitzearekin. %77,8 oso ados dago energia berriztagarriak gehiago garatzearekin (eolikoa, eguzkikoa, itsasokoa). %71,5 oso ados dago udalerrietan bertan eta udalerrien artean bidegorriak sortzearekin. Eta antzeko proportzio bat, %71,5, oso ados dago hiriguneetan oinezkoentzako bideak sustatzearekin.

— Ia hirutik bi (%66,5) ados daude justifikaziorik gabe bizitza erabilgarri txikia duten produktuak merkaturatzea debekatzearekin.

— %54 oso ados dago ibilgailu elektrikoak erostea sustatzearekin.

Mugei, murrizketei, debekuei eta zergen gehikuntzari dagokionez, aztergai dugun biztanleriaren erdia baino gutxiago oso ados dago administrazioek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko har ditzaketen mota horretako hainbat neurriri dagokienez. Hala:

— %47,8 oso ados dago ibilgailu pribatuaren abiadura mugatzearekin (hiriguneetan eta hiri arteko bideetan).

— %43,8 oso ados dago herri eta hirietatik kanpo merkataritza-gune berriak irekitzea debekatzearekin.

— %26,8 oso ados dago ibilbide laburreko hegazkin-bidaiei zerga handiagoak jartzearekin (%40,9 ez dago oso ados edo ez dago batere ados).

- %24,8 oso ados dago hiriguneetara ibilgailu hibridoak eta elektrikoak bakarrik sartzeko aukera ematearekin (%41,8 ez dago oso ados edo ez dago batere ados).

- %21,3 oso ados dago familia bakarreko eta bi bizitzako etxebizitzen eraikuntza mugatzearekin (%43,5 ez dago oso ados edo ez dago batere ados).

- Soilik %13,5 dago oso ados Gasolina eta Diesel ibilgailuei zergak igotzearekin (%60,4 ez dago oso ados edo ez dago batere ados).

**16. Grafikoa**: Administrazio publikoek klima-aldaketaren aurka borrokatzeko hainbat ekintza gauzatzearekiko adostasun-maila (%)




*Iturria: Siadeco, 2019.*

**34. Taula**: Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek ondorengo ekintzak burutzearekin, klima aldaketari aurre egiteko?

| | Oso ados | Nahiko ados | Ez oso ados | Batere ados ez | Ed/Ee | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Garraio publikoa hobetzea | 80,3 | 17,3 | 1,2 | 0,6 | 0,5 | **100,0** |
| Baso azalera handitzea | 78,5 | 14,5 | 2,8 | 0,9 | 3,3 | **100,0** |
| Energia berriztagarriak gehiago garatzea (eolikoa, eguzki-energia, itsas-energia) | 77,8 | 16,3 | 3,3 | 0,4 | 2,3 | **100,0** |
| Udalerrietan bertan eta udalerrien artean bidegorriak sortzea | 71,5 | 20,9 | 3,9 | 2,4 | 1,3 | **100,0** |
| Hiriguneetan oinezkoentzako guneak sustatzea | 71,4 | 20,3 | 3,9 | 1,7 | 2,7 | **100,0** |
| Justifikaziorik gabe bizitza erabilgarri txikia duten produktuak merkaturatzea debekatzea | 66,5 | 22,9 | 6,5 | 2,0 | 2,1 | **100,0** |
| Ibilgailu elektrikoak erostea sustatzea | 54,0 | 26,1 | 9,7 | 4,7 | 5,5 | **100,0** |
| Ibilgailu pribatuaren abiadura mugatzea (hiriguneetan eta hiriguneetatik kanpo ere bai) | 47,8 | 30,5 | 12,3 | 7,6 | 1,8 | **100,0** |
| Herri eta hirietatik kanpo merkataritza zentro berriak debekatzea | 43,8 | 24,1 | 15,0 | 9,7 | 7,4 | **100,0** |
| Hegazkinez egiten diren bidaiei zerga handiagoak jartzea | 26,0 | 21,1 | 20,2 | 20,7 | 11,9 | **100,0** |
| Hiriguneetara ibilgailu hibridoei eta elektrikoei bakarrik sartzeko aukera ematea (auto pribatuaren erabilera mugatzea) | 24,8 | 27,0 | 23,1 | 18,7 | 6,5 | **100,0** |
| Familia bakarreko eta bi familiako etxebizitzen eraikuntza mugatzea (dentsitate txikiko hirigintza mugatzea) | 21,3 | 21,2 | 22,8 | 20,7 | 14,0 | **100,0** |
| Gasolina eta diesel ibilgailuei zergak igotzea | 13,5 | 19,8 | 23,8 | 36,6 | 6,4 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco, 2019.*

Aipatutako gaietako batzuk Soziometroaren EAEko eta Gipuzkoako emaitzekin alderatuz, badirudi gure proiektuan adostasun-maila handiagoa dagoela garraio publikoa hobetzearekin, auto elektrikoak sustatzearekin eta gasolina eta diesel ibilgailuei zergak ez igotzearekin. Antzeko adostasun-maila, halaber, energia berriztagarrien garapenari dagokionez, eta desadostasun-maila txikiagoa hegazkin-bidaietan zerga handiagoak ezartzeari dagokionez. Horrenbestez:

— %80,3 oso ados dago garraio publikoa hobetzearekin; Soziometroko datuekin alderatuz gero, Gipuzkoan %57 zegoen garraio publikoa bultzatzearekin ados, eta EAE osoan %59.

— %77,8 oso ados egongo litzateke energia berriztagarriak gehiago garatzearekin (eolikoa, eguzki-energia, itsasokoa). Soziometroko datuen arabera, Gipuzkoan, %77 erabat ados egongo litzateke, eta EAE osoan, berriz, %78. Kasu honetan, proportzioak antzekoak dira bi ikerketetan.

— %54 oso ados dago ibilgailu elektrikoak erostearekin. Soziometroaren arabera, Gipuzkoan, %38 ados egongo litzateke ibilgailu elektrikoen erosketa sustatzen jarraitzearekin, eta EAEn, %36.

— %40,9 ez dago batere ados hegazkin-bidaietan zerga handiagoak jartzearekin. Soziometroaren arabera, Gipuzkoan proportzioa %48 izango litzateke eta EAEn %53.

— % 60,4 ez dago ados gasolina eta diesel ibilgailuei zergak igotzearekin. Soziometroaren arabera, Gipuzkoan %35 da gehien kutsatzen duten ibilgailuei zerga gehiago jartzearekin oso ados edo batere ados ez dagoena, eta EAEn %36.

**35. Taula**:Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek ondorengo ekintzak burutzearekin, klima aldaketari aurre egiteko?

| | | | Oso ados | Nahiko ados | Ez oso ados | Batere ados ez | Ed/Ee | Guztira | N |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Garraio publikoa hobetzea (sustatzea) | Siadeco Gipuzkoa 2019 | | 80,3 | 17,3 | 1,2 | 0,6 | 0,5 | 100,0 | 600 |
| | Sozio-metroa | Gipuzkoa 2017 | 57 | 36 | 4 | 2 | 2 | 100,0 | 325 |
| | | EAE 2017 | 59 | 33 | 4 | 1 | 2 | 100,0 | 1.000 |
| Energia berriztagarriak gehiago garatzea (eolikoa, eguzki-energia, itsas energia) | Siadeco Gipuzkoa 2019 | | 77,8 | 16,3 | 3,3 | 0,4 | 2,3 | 100,0 | 600 |
| | Sozio-metroa | Gipuzkoa 2017 | 77 | 16 | 2 | 1 | 4 | 100,0 | 325 |
| | | EAE 2017 | 78 | 17 | 2 | 1 | 2 | 100,0 | 1.000 |
| Ibilgailu elektrikoak erostea sustatzea (jarraitzea) | Siadeco Gipuzkoa 2019 | | 54,0 | 26,1 | 9,7 | 4,7 | 5,5 | 100,0 | 600 |
| | Sozio-metroa | Gipuzkoa 2017 | 38 | 38 | 9 | 5 | 11 | 100,0 | 325 |
| | | EAE 2017 | 36 | 44 | 9 | 4 | 8 | 100,0 | 1.000 |
| Hegazkinez egiten diren bidaiei zerga handiagoa jartzea | Siadeco Gipuzkoa 2019 | | 26,0 | 21,1 | 20,2 | 20,7 | 11,9 | 100,0 | 600 |
| | Sozio-metroa | Gipuzkoa 2017 | 15 | 20 | 22 | 26 | 17 | 100,0 | 325 |
| | | EAE 2017 | 13 | 21 | 27 | 26 | 14 | 100,0 | 1.000 |
| Gasolina eta diesel ibilgailuei zergak igotzea (gehien kutsatzen duten ibilgailuei) | Siadeco Gipuzkoa 2019 | | 13,5 | 19,8 | 23,8 | 36,6 | 6,4 | 100,0 | 600 |
| | Sozio-metroa | Gipuzkoa 2017 | 30 | 28 | 17 | 18 | 8 | 100,0 | 325 |
| | | EAE 2017 | 27 | 32 | 20 | 16 | 6 | 100,0 | 1.000 |

*Iturria: Siadeco, 2019 eta Soziometroa, 2017ko urria.*

**36. Taula:** Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **energia berriztagarriak gehiago garatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 79,4 | 76,1 | 77,3 | 82,2 | 80,2 | 70,0 | 78,2 | 76,6 | 78,4 | 75,6 | 73,3 | 78,4 | 81,8 | 77,8 | **77,8** |
| Nahiko ados | 13,3 | 19,3 | 18,7 | 14,4 | 14,3 | 18,7 | 15,6 | 17,6 | 15,6 | 18,9 | 19,2 | 15,3 | 12,7 | 18,9 | **16,3** |
| Ez oso ados | 3,5 | 3,0 | 2,7 | 1,6 | 4,9 | 4,1 | 2,6 | 2,6 | 4,2 | 2,2 | 3,3 | 4,7 | 1,8 | 0,0 | **3,3** |
| Batere ados ez | 0,8 | 0,0 | 0,6 | 0,0 | 0,0 | 1,1 | 0,0 | 0,5 | 0,6 | 2,2 | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 0,0 | **0,4** |
| Ed/Ee | 3,1 | 1,6 | 0,6 | 1,7 | 0,6 | 6,2 | 3,7 | 2,7 | 1,2 | 1,1 | 4,2 | 1,6 | 2,7 | 3,3 | **2,3** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**37. Taula:** Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **justifikaziorik gabe bizitza erabilgarri txikia duten produktuak merkaturatzea debekatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 71,3 | 61,7 | 59,2 | 71,7 | 65,6 | 66,0 | 69,3 | 65,6 | 65,4 | 65,6 | 61,7 | 68,4 | 66,4 | 66,7 | **66,5** |
| Nahiko ados | 17,1 | 28,6 | 28,5 | 18,9 | 26,0 | 20,5 | 21,1 | 23,2 | 23,6 | 18,9 | 25,8 | 22,6 | 22,7 | 23,3 | **22,9** |
| Ez oso ados | 6,4 | 6,7 | 6,9 | 6,9 | 5,9 | 6,5 | 6,4 | 6,0 | 7,1 | 7,8 | 7,5 | 6,3 | 8,2 | 2,2 | **6,5** |
| Batere ados ez | 2,2 | 1,8 | 4,0 | 2,0 | 0,6 | 2,1 | 1,1 | 3,0 | 1,8 | 5,6 | 2,5 | 0,5 | 1,8 | 4,4 | **2,0** |
| Ed/Ee | 3,0 | 1,3 | 1,4 | 0,5 | 1,9 | 4,9 | 2,1 | 2,2 | 2,1 | 2,2 | 2,5 | 2,1 | 0,9 | 3,3 | **2,1** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**38. Taula:** Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **garraio publikoa hobetzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 80,8 | 79,8 | 74,9 | 84,4 | 83,5 | 76,1 | 77,0 | 81,6 | 81,4 | 84,4 | 87,5 | 76,8 | 80,9 | 78,9 | **80,3** |
| Nahiko ados | 16,2 | 18,4 | 21,2 | 14,9 | 14,5 | 20,3 | 20,5 | 15,8 | 16,5 | 13,3 | 10,8 | 20,0 | 17,3 | 20,0 | **17,3** |
| Ez oso ados | 1,7 | 0,7 | 1,3 | 0,8 | 1,0 | 1,9 | 1,4 | 0,8 | 1,5 | 2,2 | 0,8 | 1,6 | 0,0 | 1,1 | **1,2** |
| Batere ados ez | 1,3 | 0,0 | 1,3 | 0,0 | 1,0 | 0,6 | 0,0 | 1,9 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,1 | 0,9 | 0,0 | **0,6** |
| Ed/Ee | 0,0 | 1,1 | 1,3 | 0,0 | 0,0 | 1,1 | 1,1 | 0,0 | 0,6 | 0,0 | 0,8 | 0,5 | 0,9 | 0,0 | **0,5** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**39. Taula:** Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **gasolina eta diesel ibilgailuei zergak igotzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 14,2 | 12,8 | 19,6 | 15,6 | 11,1 | 8,7 | 14,0 | 13,1 | 13,5 | 12,2 | 8,3 | 13,7 | 15,5 | 18,9 | **13,5** |
| Nahiko ados | 18,4 | 21,3 | 26,5 | 17,7 | 22,7 | 14,7 | 20,2 | 21,5 | 18,2 | 22,2 | 14,2 | 20,5 | 21,8 | 20,0 | **19,8** |
| Ez oso ados | 27,6 | 20,0 | 20,2 | 28,6 | 20,0 | 24,1 | 19,6 | 22,3 | 27,7 | 15,6 | 32,5 | 25,3 | 17,3 | 22,2 | **23,8** |
| Batere ados ez | 30,6 | 42,5 | 27,7 | 36,1 | 37,7 | 42,5 | 40,7 | 34,9 | 35,3 | 50,0 | 39,2 | 31,6 | 41,8 | 32,2 | **36,6** |
| Ed/Ee | 9,3 | 3,4 | 5,9 | 2,1 | 8,4 | 9,9 | 5,6 | 8,3 | 5,3 | 0,0 | 5,8 | 8,9 | 3,6 | 6,7 | **6,4** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**40. Taula:** Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **ibilgailu elektrikoak erostea sustatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 55,6 | 52,4 | 53,4 | 58,1 | 55,7 | 47,6 | 55,5 | 56,1 | 51,4 | 57,8 | 48,3 | 52,1 | 60,9 | 56,7 | **54,0** |
| Nahiko ados | 22,9 | 29,3 | 27,1 | 25,1 | 24,9 | 27,7 | 28,3 | 22,6 | 27,5 | 22,2 | 32,5 | 26,8 | 25,5 | 17,8 | **26,1** |
| Ez oso ados | 10,2 | 9,2 | 13,8 | 10,1 | 8,0 | 7,8 | 7,3 | 7,0 | 13,3 | 11,1 | 10,8 | 11,6 | 3,6 | 7,8 | **9,7** |
| Batere ados ez | 4,1 | 5,3 | 5,0 | 4,7 | 3,9 | 5,3 | 3,5 | 6,4 | 4,1 | 7,8 | 1,7 | 3,7 | 4,5 | 11,1 | **4,7** |
| Ed/Ee | 7,1 | 3,8 | 0,6 | 1,9 | 7,4 | 11,6 | 5,3 | 7,9 | 3,6 | 1,1 | 6,7 | 5,8 | 5,5 | 6,7 | **5,5** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**41. Taula:** Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **hiriguneetara ibilgailu hibridoei eta elektrikoei bakarrik sartzeko aukera ematea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 23,2 | 26,4 | 24,6 | 26,9 | 24,7 | 22,2 | 18,7 | 28,7 | 25,4 | 20,0 | 17,5 | 26,3 | 24,5 | 34,4 | **24,8** |
| Nahiko ados | 24,6 | 29,4 | 32,4 | 28,4 | 20,8 | 27,4 | 31,5 | 28,9 | 22,6 | 22,2 | 19,2 | 28,9 | 29,1 | 32,2 | **27,0** |
| Ez oso ados | 23,1 | 23,1 | 24,4 | 18,9 | 27,9 | 22,7 | 19,6 | 20,2 | 27,7 | 24,4 | 25,8 | 24,7 | 19,1 | 16,7 | **23,1** |
| Batere ados ez | 19,5 | 17,9 | 16,4 | 23,3 | 16,9 | 16,3 | 20,2 | 15,6 | 20,2 | 26,7 | 25,8 | 14,7 | 20,0 | 14,4 | **18,7** |
| Ed/Ee | 9,7 | 3,2 | 2,1 | 2,6 | 9,7 | 11,4 | 10,0 | 6,6 | 4,2 | 6,7 | 11,7 | 5,3 | 7,3 | 2,2 | **6,5** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**42. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **ibilgailu pribatuaren abiadura mugatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 53,6 | 42,0 | 31,2 | 51,0 | 51,1 | 52,7 | 44,7 | 50,9 | 47,2 | 47,8 | 32,5 | 51,1 | 52,7 | 50,0 | **47,8** |
| Nahiko ados | 27,7 | 33,2 | 31,9 | 29,2 | 26,9 | 34,5 | 28,7 | 29,9 | 32,0 | 33,3 | 31,7 | 31,1 | 28,2 | 26,7 | **30,5** |
| Ez oso ados | 11,7 | 12,9 | 23,7 | 10,5 | 11,0 | 7,6 | 14,1 | 10,4 | 12,8 | 11,1 | 22,5 | 10,0 | 10,9 | 10,0 | **12,3** |
| Batere ados ez | 4,7 | 10,6 | 11,1 | 8,5 | 8,0 | 3,6 | 11,3 | 5,7 | 6,8 | 5,6 | 10,8 | 6,3 | 6,4 | 12,2 | **7,6** |
| Ed/Ee | 2,3 | 1,3 | 2,0 | 0,8 | 3,1 | 1,6 | 1,1 | 3,1 | 1,2 | 2,2 | 2,5 | 1,6 | 1,8 | 1,1 | **1,8** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**43. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **udalerrietan bertan eta udalerrien artean bidegorriak sortzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 71,6 | 71,4 | 76,3 | 74,8 | 66,9 | 68,4 | 76,1 | 75,6 | 65,3 | 71,1 | 74,2 | 64,7 | 80,9 | 82,2 | **71,5** |
| Nahiko ados | 19,1 | 22,8 | 19,7 | 17,4 | 22,1 | 25,1 | 18,2 | 19,0 | 24,2 | 22,2 | 19,2 | 24,7 | 15,5 | 14,4 | **20,9** |
| Ez oso ados | 4,6 | 3,1 | 0,0 | 5,1 | 7,5 | 1,5 | 3,6 | 3,4 | 4,4 | 2,2 | 2,5 | 5,8 | 2,7 | 1,1 | **3,9** |
| Batere ados ez | 2,7 | 2,2 | 3,2 | 1,9 | 2,5 | 2,4 | 0,5 | 0,8 | 5,0 | 3,3 | 1,7 | 3,7 | 0,0 | 1,1 | **2,4** |
| Ed/Ee | 2,0 | 0,6 | 0,7 | 0,8 | 1,0 | 2,6 | 1,6 | 1,1 | 1,2 | 1,1 | 2,5 | 1,1 | 0,9 | 1,1 | **1,3** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**44. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **hegazkinez egiten diren bidaiei zerga handiagok jartzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 22,2 | 29,9 | 23,2 | 29,9 | 30,1 | 19,2 | 24,7 | 28,0 | 25,3 | 28,9 | 18,3 | 26,8 | 26,4 | 31,1 | **26,0** |
| Nahiko ados | 18,9 | 23,4 | 26,7 | 21,3 | 25,3 | 12,7 | 22,8 | 22,7 | 18,9 | 23,3 | 19,2 | 18,9 | 26,4 | 23,3 | **21,1** |
| Ez oso ados | 23,4 | 17,0 | 24,2 | 21,7 | 13,8 | 21,9 | 16,7 | 20,1 | 22,6 | 15,6 | 19,2 | 24,2 | 16,4 | 15,6 | **20,2** |
| Batere ados ez | 19,4 | 22,0 | 22,6 | 18,9 | 21,6 | 20,8 | 21,9 | 14,6 | 24,9 | 24,4 | 30,0 | 17,9 | 17,3 | 20,0 | **20,7** |
| Ed/Ee | 16,1 | 7,7 | 3,4 | 8,3 | 9,1 | 25,4 | 13,9 | 14,6 | 8,3 | 7,8 | 13,3 | 12,1 | 13,6 | 10,0 | **11,9** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**45. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **hiriguneetan oinezkoentzako guneak sustatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 70,5 | 72,2 | 73,2 | 76,5 | 67,0 | 67,9 | 69,6 | 76,3 | 68,5 | 66,7 | 72,5 | 68,4 | 77,3 | 77,8 | **71,4** |
| Nahiko ados | 18,0 | 22,7 | 20,8 | 17,3 | 22,8 | 21,4 | 19,5 | 18,8 | 22,1 | 20,0 | 20,0 | 22,6 | 15,5 | 18,9 | **20,3** |
| Ez oso ados | 5,6 | 2,2 | 1,3 | 4,3 | 4,7 | 4,6 | 6,3 | 1,1 | 4,7 | 5,6 | 4,2 | 4,2 | 3,6 | 1,1 | **3,9** |
| Batere ados ez | 2,4 | 1,0 | 1,9 | 0,8 | 2,9 | 1,4 | 0,9 | 1,1 | 2,6 | 5,6 | 0,0 | 2,1 | 0,0 | 1,1 | **1,7** |
| Ed/Ee | 3,5 | 1,9 | 2,7 | 1,2 | 2,6 | 4,6 | 3,7 | 2,7 | 2,1 | 2,2 | 3,3 | 2,6 | 3,6 | 1,1 | **2,7** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**46. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **herri eta hirietatik kanpo merkataritza zentro berriak debekatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 42,9 | 44,6 | 36,7 | 45,4 | 42,0 | 48,7 | 40,6 | 46,4 | 43,7 | 46,7 | 29,2 | 44,7 | 50,0 | 50,0 | **43,8** |
| Nahiko ados | 24,0 | 24,2 | 26,6 | 20,3 | 32,1 | 19,2 | 29,4 | 22,1 | 22,4 | 26,7 | 30,8 | 21,6 | 21,8 | 25,6 | **24,1** |
| Ez oso ados | 13,8 | 16,2 | 17,9 | 19,6 | 11,8 | 10,3 | 15,6 | 16,5 | 13,4 | 8,9 | 20,8 | 15,3 | 12,7 | 14,4 | **15,0** |
| Batere ados ez | 10,1 | 9,2 | 14,5 | 8,6 | 8,0 | 9,1 | 8,0 | 6,3 | 13,4 | 14,4 | 12,5 | 8,4 | 9,1 | 6,7 | **9,7** |
| Ed/Ee | 9,2 | 5,6 | 4,2 | 6,1 | 6,1 | 12,7 | 6,4 | 8,6 | 7,1 | 3,3 | 6,7 | 10,0 | 6,4 | 3,3 | **7,4** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**47. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **familia bakarreko eta bi familiako etxebizitzen eraikuntza mugatzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 20,3 | 22,2 | 17,4 | 25,0 | 20,5 | 20,1 | 16,7 | 21,2 | 24,2 | 26,7 | 13,3 | 24,2 | 15,5 | 24,4 | **21,3** |
| Nahiko ados | 20,7 | 21,6 | 28,7 | 17,0 | 26,3 | 15,8 | 25,0 | 21,7 | 18,3 | 13,3 | 25,8 | 20,5 | 22,7 | 22,2 | **21,2** |
| Ez oso ados | 21,6 | 24,1 | 23,5 | 27,3 | 22,9 | 16,7 | 18,1 | 23,7 | 25,1 | 17,8 | 20,8 | 25,8 | 21,8 | 20,0 | **22,8** |
| Batere ados ez | 21,1 | 20,3 | 22,9 | 16,1 | 19,9 | 25,6 | 25,2 | 17,9 | 20,2 | 27,8 | 20,0 | 16,8 | 27,3 | 21,1 | **20,7** |
| Ed/Ee | 16,3 | 11,8 | 7,6 | 14,5 | 10,4 | 21,7 | 15,0 | 15,6 | 12,2 | 14,4 | 20,0 | 12,6 | 12,7 | 12,2 | **14,0** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

**48. Taula:**Zenbateraino zaude ados, administrazio publikoek **baso azalera handitzea**rekin klima aldaketari aurre egiteko?

| | SEXUA | | ADINA | | | | HABITAT-A | | | ESKUALDEA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizonezkoa | Emakumezkoa | 16-30 urte | 31-50 urte | 51-65 urte | >65 urte | <10.000 bizt. | 10.000-25.000 bizt. | >25.000 bizt. | Bidasoa Beherea | Deba Beherea-Debagoiena | Donostialdea | Goierri-Tolosaldea | Urola-Kostaldea | **Guztira** |
| Oso ados | 78,5 | 78,5 | 77,7 | 81,1 | 78,1 | 76,3 | 71,7 | 79,6 | 81,9 | 78,9 | 63,3 | 83,7 | 81,8 | 74,4 | **78,5** |
| Nahiko ados | 14,5 | 14,6 | 12,8 | 15,6 | 15,7 | 13,2 | 19,8 | 11,5 | 13,6 | 16,7 | 25,8 | 10,5 | 10,0 | 18,9 | **14,5** |
| Ez oso ados | 2,1 | 3,4 | 1,4 | 1,7 | 4,6 | 3,2 | 4,3 | 2,8 | 1,8 | 2,2 | 3,3 | 1,6 | 5,5 | 3,3 | **2,8** |
| Batere ados ez | 1,3 | 0,5 | 1,9 | 0,8 | 0,0 | 1,1 | 0,0 | 2,3 | 0,3 | 1,1 | 0,0 | 1,1 | 0,9 | 1,1 | **0,9** |
| Ed/Ee | 3,6 | 3,1 | 6,1 | 0,8 | 1,6 | 6,2 | 4,2 | 3,8 | 2,4 | 1,1 | 7,5 | 3,2 | 1,8 | 2,2 | **3,3** |
| Guztira | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | **100,0** |

*Iturria: Siadeco 2019.*

# 07 Ondorioak

## 1
### Bat-bateko lotura

Gipuzkoako biztanleek gero eta gehiago lotzen dute klima-aldaketa, era espontaneoan, kausa eta ondorio batzuekin, baina, batez ere, **arazoaren larritasunarekin eta garrantziarekin**, horrek planeta mailan "hondamendi" bat ekar dezakeelakoan. **Kezka-egoera, aldaketa-krisia eta jarduteko beharra sumatzen hasi dira**.

## 2
### Kezka

Biztanleei klima-aldaketarekiko duten kezka-mailari buruz galdetuta, %46 oso kezkatuta dago (%35,6) edo ikaragarri kezkatuta dago (%10,4). 2017ko Soziometroaren datuak kontuan hartuta, **kezka-mailan hazkunde sakon eta azkarra gertatu da**: bi urtean, ikaragarri (% 5) edo oso kezkatuta (% 23) daudenen portzentajea %28tik %46ra igaro da.

## 3
### Informazioa eta garrantzia

Biztanleriaren %68-69 inguruk adierazi du informazio asko edo dezente duela klima-aldaketari buruz, aldaketa horren kausei eta ondorioei buruz. Aitzitik, %47k **gutxi edo batere ez daki klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurrien inguruan**. Horregatik da garrantzitsua arlo horretan informazio-lan eraginkorrak egitea.

%71,4k uste du klima-aldaketari **behar baino garrantzi gutxiago ematen zaiola**, eta, beraz, arreta handiagoa eskatzen du.

## 4
### Erantzukizuna

Egiaztatu da biztanleriak **erantzukizun handia egozten diela enpresei eta industriei** (% 64) klima-aldaketaren aurkako ahaleginean, baina baita **erakundeei** ere (adibidez % 56k garrantzi handia ematen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari) eta herritarrei beraiei ere bai (% 47). Baina, era berean, herritarrak jabetzen dira **norberaren erantzukizunaz** (%87,3k uste du norberak, pertsonalki, erantzukizun handia -% 47,4- edo dezente duela -39,6-).

## 5

## Larritasuna eta inpaktu-motak

Arestian adierazi dugun larritasunaren pertzepzioa berretsi egiten da, **%21,6k** klima-aldaketaren **ondorioak oso larriak** izango direla uste baitu. %55,5ek uste du nahiko larriak izango direla, eta %14,5ek arinak edo garrantzirik gabekoak. %8,5ek, aldiz, ez du horri buruzko adierazpenik egin.

Biztanleriak aitortutako larritasun-maila handienetik txikienera ordenatuta, hauek dira klima-aldaketaren ondorio nagusiak: **biodibertsitatearen galera, itsas-mailaren igoera eta uholdeak**.

## 6

## Gaur egungo ekintzak eta etorkizunekoak

**%85,4k adierazi du azken sei hilabeteetan klima-aldaketaren aurkako neurriren bat hartu duela,** pertsonalki. Proportzio hori oso altua dela esan daiteke, 2017ko Eurobarometer Climate Change ikerketaren %49koarekin alderatzen baldin badugu.

Energiaren, garraioaren eta kontsumoaren inguruan klima-aldaketaren aurka borrokatzeko etorkizun hurbilean egin diren edo egitea aurreikusten diren ekintza pertsonalei buruz aztertu ditugun 19 gaietatik, gaur egun proportzio handienean egiten diren **10 ekintzak** nabarmentzen ditugu. Alegia, ranking-eko lehenengo 10 ekintzak:

- Gaur egun zaborra bereiztea (beira, papera, ontziak, organikoa) %77,3k egiten du, eta etorkizunean %91,1ek egingo luke.
- Erabili eta botatzeko gaien kontsumoa saihestea (plastikozko poltsak erosketetan), gaur egun %61,7k egiten baitu, eta etorkizunean %79,4k egingo luke.
- Gertuko elikagaiak, sasoikoak, erostea; gaur egun %53,8k egiten du, eta etorkizunean %68,8k egingo luke.
- Etxebizitzan energia aurrezteko moduari buruz informatzea, %53k egiten baitu, eta etorkizunean% 68,9k egingo baitu.
- %49,5ek auzoko edo gertuko dendetan egiten du erosketa, urrun dauden merkataritza-guneen aldean, eta etorkizunean %64,8k egingo du.
- %48,6k produktuak konpondu eta berrerabiltzen ditu (arropa, etxetresna elektrikoak, aparatu elektrikoak, etab.), eta etorkizunean %64k egingo du.
- %46,4k adierazi du oinez joaten dela egunero, autoz joan beharrean, eta etorkizunean %66,3k egingo du.

- %43,5ek etxetresna elektrikoak erosten ditu, energia-kontsumo txikiagoari garrantzia emanez, eta %67k etorkizunean egingo du

- %43,5ek tokiko establezimenduetan erostea lehenesten du, Internet bidezko erosketen aldean, pakete-banaketaren ondoriozko emisioak murrizteko, eta %60,5ek etorkizunean egingo du.

- %42,1ek adierazi du kantitate txikiagoa erosten duela, baina kalitate eta iraunkortasun handiagokoa (arropa eta teknologia), eta etorkizunean %58,3k egingo du.

Esan genezake 10 ekintzetatik **erdiak kontsumoarekin zuzenean lotuta daudela**, hiru garraioarekin eta bi energiarekin. Dena den, azken bi ekintza mota horien artean kontsumoarekin zerikusia izan dezaketen batzuk ere badaude.

## 7
## Gehiago ez jarduteko oztopoak

Klima-aldaketaren aurka neurri handiagoan ez jarduteko biztanleriak planteatzen dituen oztopoei dagokienez, honako tipologia hau plantea genezake.

- Biztanleria **proiektiboa**: klima-aldaketari aurre egiteko ardura beste batzuei dagokiela uste du (batez ere, enpresei eta gobernuei). Biztanleriaren %34,8 izango litzateke.

- Biztanleria **erosoa**: ez du denborarik edo baliabiderik galdu nahi horrelako jardueretan. Biztanleriaren %29,6 izango litzateke.

- **Orientaziorik eta informaziorik gabeko biztanleria**: adierazi du ez dakiela zer egin beharko lukeen (ez du ekintzarako informaziorik) edo ez dakiela / ez duela erantzuten. Segmentu horren inguruan, %21,7 bilduko litzateke.

- Biztanleria **eszeptikoa**: Bere ustez, ezin du ezer egin. Biztanleriaren %6,9 izango litzateke.

- Biztanleria **desanimatua**: egingo duenak ez duela asko balioko uste du. Biztanleriaren %6,2 izango litzateke.

- **Arduragabeko** biztanleria: oso biztanle talde txikia da, eta argi eta garbi adierazi du gaiak ez duela kezkatzen. %0,7 baino ez litzateke.

Kolektibo horiek azken bi urteetan izan duten bilakaerari dagokionez, Soziometroaren datuei erreparatuz, honako hau egiaztatu daiteke: biztanleria proiektiboa asko handitu da; biztanleria eroso eta eszeptikoa ere handitu egin dira. Aitzitik, gutxitu egin da orientazio edo informazio falta duen populazioa, baita arduragabea eta desanimatua ere.

## 8

## Garraiobide jasangarriagoak ez erabiltzeko arrazoiak

Eguneroko joan-etorriak batez ere autoz egiten dituzten pertsonak soilik kontuan hartuta (%48,1), garraiobide iraunkorragoak (garraio publikoa, bizikleta edo oinez joatea) ez erabiltzearen arrazoi nagusiak hauek dira:

- **Bideraezintasuna**(distantziagatik, garraio publikoko lineen faltagatik). Hori adierazten du biztanleriaren %63,7k, eta autoa erabili ohi du.
- **Erosotasuna** aipatzen du %14,4k.
- **Denbora gehiegi beharko lukeela** dio biztanleriaren %10,7ek.

## 9

## Energia berriztagarriak instalatzeko zailtasunak

Hauek dira biztanleek beren eraikinean energia horiek ez instalatzeko azaldutako zailtasun nagusiak: inbertsioaren **kostua** (%31,3), bizilagunak **ados jartzeko zailtasuna** (%24,4), eta energia berriztagarriak instalatzeko aukerei eta energia horien abantailei buruzko **ezjakintasuna** (%20,6).

Energia berriztagarrien instalazioari buruzko ezjakintasun handia dago. Izan ere, beste %17,8k ez du gaiari buruzko adierazpenik egin.

## 10

## Administrazioen ekintza

Oro har, egiaztatzen da **administrazioek klima-aldaketaren aurkako ekintzak sustatzearen oso alde daudela herritarrak, baina, betiere, mugak, murrizketak, debekuak edo zergak igotzea ez baldin badakarte**. Hona hemen jarrera hori berresten duten zenbait datu:

— %80,3 oso ados dago administrazio publikoek garraio publikoa hobetzea sustatzearekin klima-aldaketaren aurkako neurri gisa. %78,5 oso ados dago baso-azalera handitzearekin. %77,8 oso ados dago energia berriztagarriak gehiago garatzearekin (eolikoa, eguzki-energia, itsasokoa). %71,5 oso ados dago udalerrietan bertan eta udalerrien artean bidegorriak sortzearekin, eta proportzio bera oso ados dago hiriguneetan oinezkoentzako guneak sustatzearekin.

— %60,4 adostasun-maila gutxi edo batere ez du Gasolina eta Diesel ibilgailuei zergak igotzearekin. %43,5k adostasun-maila gutxi edo batere ez du familia bakarreko eta bi familiako etxebizitzen eraikuntza mugatzearekin.%41,8 ez dago batere ados hiriguneetara ibilgailu hibrido eta elektrikoei bakarrik sartzeko aukera ematearekin. Eta %40,9 ez dago batere ados ibilbide laburreko hegazkin-bidaiei zerga handiagoak jartzearekin.

Aztertu diren azken puntuak 2017ko Soziometroaren EAEko eta Gipuzkoako emaitzekin alderatuz gero, gure proiektuan adostasun-maila handiagoa izango genuke garraio publikoa hobetzearekin, auto elektrikoen erosketa sustatzearekin eta gasolina eta diesel ibilgailuei zergak ez igotzearekin. Antzeko adostasun-maila energia berriztagarrien garapenari dagokionez, eta desadostasun-maila txikiagoa hegazkin-bidaietan zerga handiagoak ezartzeari dagokionez.